

7) FUNTSEZKO BALIABIDEAK

➤ **Baliabide fisikoak:**

Garraioa baliabide fisiko bezala erabiliko dugu. Hau, ahalik eta azkarrena izango da eta balio erantsi bat izango du 100€ baino gehiagoko salmentetan garraio hau dohainekoa izanik.

◆ **Bidalketak ``CORREOS`` enpresaren bidez egingo dira.**

- Eremua: Correos-en ahalik eta estaldura handiena bermatzen du, hurbiltasuneko zein banaketako garraio-soluzioak eskainiz lurralde nazional osoan. Gainera, edozein bidalketa Portugalera eta Andorrara ere eramaten laguntzen dizkigu.
- Kutxa isotermak: Kutxa isoterma sentsozatuak ditugu, hotz-katearen fidagarritasun handiena eta kontrol-bermea ematen dutenak. Gainera, gure kutxek tenperatura-maila desberdinak erabiltzea ahalbidetzen dute garraioa zure produktuaren beharretara egokitzeko.
- Monitorizazioa denbora errealean: Tenperatura, hezetasuna edo balizko inpaktuak denbora errealean monitorizatzen ditugu bidalketa jasotzetik entregatzeraino, I o T teknologiari esker.
- Ibilgailu berezien flota: Ibilgailu isoterma eta hoztuak ditugu, bereziki edozein bidalketen hotz-katearen kontrola eta mantentzea bermatzeko diseinatuak.

◆ **Elikadura**

Produktu freskoak tenperatura kontrolatuan garraiatzen ditugu, jatorritik helmugaraino kalitatea bermatzeko.

- Hurbiltasun Zerbitzuak: Produktu freskoak egoera ezin hobean iristen dira bezeroen etxera hurbilen dagoen entrega-zerbitzuarekin, entrega hotz, arin eta segurua egiteko diseinatuak:
 - * Bidalketak jaso eta egun berean entregatuko ditugu.
 - * Irtenbide ezin hobea txikizkako saltokietarako eta hornidura-merkatuetarako.
 - * Produktu galkorrak etxean entregatzea.
 - * Kutxa isotermak eta ibilgailu bereziak erabiltzen ditugu.

◆ **Ecommerce eta Gourmet:**

- Aukera horren bidez, produktuen gaineko kalitate-kontrola eta tenperatura-kontrola ziurtatuko ditugu; hala, bezeroak produktua baldintza onetan jasoko duela ziurtatuko dugu.
- Hau izango dira emandako zerbitzuak:
 - * Premiazko entregak egiten ditugu: Non eta noiz nahi.
 - * Produktua Estatuko edozein tokitara eramaten dugu, Portugalera eta Andorrara barne.
 - * Kutxa isotermak erabiltzen ditugu produktuak kontserbatzeko eta babesteko.
 - * Integrazio teknologikoko hainbat modalitate ditugu.

◆ **Premium paketea**

- Egokitutako bidalketa, non eta noiz behar duzun.
 - * Neurrira: bezeroak behar duen egunean eta orduan entregatzea ziurtatuta.
 - * Edozein leku: etxean entregatzea, Correos eta Citypaq bulegoetan.

- * Malgua: 30 kg-rainoko bidalketak, 24 eta 48 ordu arteko entregarekin, jatorriaren eta helmugaren arabera.
- * Zuregandik gertu: bidalketa nazionaletarako, Andorra eta Portugal penintsularra.
- * 14,30 €- tik aurrera da premium paketea.

➤ **Baliabide intelektualak:**


- ◆ Prestakuntza ikastaroak izango dira gure baliabideetako bat. Hauek irakasteko giza baliabide ezberdinak erabiliko ditugu, hau da, bai web orrialdeko edo enpresako partaideak izango gara ekintzaileak bai abeltzain edo nekazariak hartuko dute parte.
- ◆ Errezeten arloan web gunea izango dugu euskarri bezeroak laguntzeko eta bizi osasungarri batera bideratzeko laguntza moduan.

➤ **Finantza baliabideak:**

- ◆ Bakoitzaren ekarpenenaz aparte, diru sarrerak izango dira enpresaren euskarri eta baliabide nagusienak arlo honetan hauek izango ditugu:
 - Erosleei salmentak.
 - Kurtsoen diru-sarrerak.
 - Zati txiki batean:
 - * Gobernuko diru-laguntzak .
 - * Hileroko bazkide kuota.

➤ **Giza baliabideak:**

Ataza honetan gure taldeko partaide guztietaz baliatuko gara.



- Zuzendaritza kolektiboa izango dugu.
 - Jon Bilbao
 - Yasmin Cengotitabengoa
 - Luis Felipe De Oliveira
 - Unax Lavin
- Gerentea, Giza-Baliabideetako arduraduna eta Web orrialdeko erantzuleak kontratatuko ditugu.